Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pilar Txopitea Uribarri

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1924-2013)



Aurkibidea

Biografia



1924.nean sortu zen Errenteria auzoan (elizaz Gernika-Lumo zen, baina Udalez Ajangiz). Ama mendatarra zuen eta aita Muxikan jaioa, baina Errenterian hazia. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen, bonbardaketak dena aldatu zuen arte. Etxea galdu eta ezagun batzuen baserrian egon ziren Arratzun bi hilabetez. Beraien etxea zena bizitzeko lez jarri zuen bere aitak, igeltseroa zen-eta, eta Errenteriara bueltatu ziren. Errenteriako auzoa Ajangizko herriarena zen arren, sekula ez zei zuten hartu-emon onik izan. Horrelako datuekin batera beraien ume eta gaztetako Errenteriaren berri eman zigun Pilarrek.

Zintak

GER-104

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-04-18
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Kanpora alde egin beharra seme-alabak mantentzeko

- **Erref**: GER-104/003
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:05:18. **Bukatu**: 00:07:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Ea, Natxitxu, eta inguruko jendeak kanpora alde egiteko joera zuen, ez zegoen dirurik seme-alaba denak mantentzeko. Gernikak ez zuen erraz bururik altxa. Diru asko bildu omen zuten Gernikara bideratzeko, baina gernikarrek ez zuten sosik ikusi.

Transkripzioa
- Baiña antxiñeko jentie, Ieko (Eako) jentie eta, a ver, Iekoa (Eakoa) ta, Natxitxukoak ta, hortiko jentie asko bakizu nora joaten zan? kanpora. Kuba, Kubara be bai, joaten zien, nortekoak zerekoak be, El Paso, el bar El Pasok eta harek pe bai, norte, nortien, neba-arrebak eta danak. Ee... hamalau ume-eta eukitzen abiezen ta, nok manteniduteko baserridxegaz bakarrik. Holan baiño... ta kosta ein zan, Gernike altxatie e, loteridxe apur bet urten eban, ta harexek apurtxu bet zertu. Baie bota ein ebien /einbien/ dirue Gernikarako, e? Ba ze plazan nik hori erretratue badekot, a ver, esango dotsut /esangotsut/. Plazan egon giñen, eta etor zen alemana, bonbardeau ebana Gernike, bat, [etor zen]. Bueno, gehidxau izan zien, baia, bat, etor zen. Ta harek esan oskun /esaskun/, ba ze, ba, zelan entere diezen eurek Alemanidxen, ba, gorridxek ein dabela zertu... a ver, esango dotsut / esangotzut/...
- Bonbardieu?
- Bonbardeau, eta erre, erre. Ta harek esan euskun /esazkun/, guzurrek dizela. Berak ez, traduktorak. Berak tradutorrari esaten otson /esatentzon/, ta harek erderaz esaten oskun /esateskun/ guri. Ta horrek gauzok. Ta bazterrak diru, asko, diru asko batu ebiela /batubiela/, Gernikarako. Baie Gerniken ez dogu ikusi dirurik, antza Madrilen geratu zan. Goikoa, ze guk ez dakagu, ba ze guri ez doskue emon iñok esplikaziñorik eta.

2. Aita kontratista, gorria ez, bizkaitarra baizik

- **Erref**: GER-104/007
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:12:39. **Bukatu**: 00:13:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:
Aita Amorotokoa zuen, kontratista. Gorria zelakoan kartzelara joan beharko zuela esaten zioten, eta berak ezetz, ez zela gorria, bizkaitarra baizik. Aitak ez zekien gazteleraz.

Transkripzioa
- Dana obrerue, nire aitte albañela izen zan, kontratistie. Ta nire aitteri esan ei otsen /eixotzen/, Txopitea apellidue euken, ta Amorotokoa esan dotsat /esantsat/, ta esaten otson /esatentzon/ ba ze, esaten otsen: "Txopeta, kartzelara joan biher dozu /bizu/, zu gorridxe zara ta", "Ni ez naz /enaz/ gorridxe, bizkaittarra baiño" esaten eben. Ta zerak... baten be esan ei otson /esanitzon/ bankukoak, arkupitan ipin bien, kaiolatxu lako zertxo bat, bonbardeoa izan ta gero, e. Guarda zobil bi haulan. Ta joan ta jefiari esan otson /esantzon/ ze: "Txopitea, no le podemos dar dinero, porque usted es rojo", "Yo rojo no, ¿eh?, bizkaitarra sí, pero rojo no", gure aittek. Ez eban jakin eusker... erderaz, ez amak, ez aittek. Nire aittek hemeretzi urte ezkondu zanien, ta amak 22.
- Karo, Amoroton... Ai, zure aitte, Amorotoko ama ta aitte eukindde, ez eban entzungo...
- Bai.

3. Eskolak Ajangizen eta karmeldarretan

- **Erref**: GER-104/008
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:
Ajangizera joaten ziren eskolara lehenik, eta gero karmeldarretara, ordainduta.

Transkripzioa
- Ezin joan eskolara be, ba ze eskolara joan bai, baie bakizu nora joan behar izaten gendun? Ajangizko puntera arte. Eta Ajangizko puntera arte, kamiñondoan, baserriko [...] bakarrik, arbolarik be ez, arbolarik be ez, dana soloa, dana soloa edo dana basoa, besterik ez. Eta gero Karmelittetara joaten giñen, pagaute, ez dozu entzuten. Oin ez, oin... oin... oin [merzeden] be eskolie badauen lez, neuk dakotez alabie han ezkondute, edo, ezkondu zanien, 30 urte baiño gehidxau dau andereño.
- Orduen, zu karmelittetan?
- E?
- Pagokoan? Karmelittetan pagokora?

4. Mutilekin jolasean

- **Erref**: GER-104/009
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:14:41. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Mutilekin jolasean aritzen ziren, baserrietako ukuiluetan ere bai, goitik behera zikintzen ziren eta gero etxean errieta egiten zieten. Bonbardaketarekin hori guztia amaitu egin zen.

Transkripzioa
- Ba, gaztetan guk ez ze, mutilekin olgetan, [tanke libre bera], ta. Kontizu, etxe askotan egon zan, behidxek-eta eukitxen ebiezan, ezta? igual [...] beittuten otsazun etxiri ta, ez auien okitxen baserriko [haute] zera. Lantzien bat sartzen giñen kortan... hondatute etxera! Amak zelako agirikak, mutillak baiño txarrauek gariela ta. Baiño ze eingo gendun ba? gaztiek izen giñen ta. Gero bonbardeoa izan zanien, dana [kanbixe] zan, e.
- Eta zetan olgetan zenduen?
- E?
- Olgeu zetan? zetan olgeu? zetara olgeu? mutilekaz eta neskakaz-eta zetan olgeu zetan?
- Olgetan, baiña gero...

5. Kuadrillan neskak eta mutilak elkarrekin

- **Erref**: GER-104/010
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:15:35. **Bukatu**: 00:16:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Kuadrillan mutil eta neska, elkarrekin ibili ohi ziren. Mutilak Errenteriara joaten ziren neskengana.

Transkripzioa
- Gero, politike txarridxek ba, bakizu zer pasaten dan. Batzuk gero, Francon partez joan [diezela], ta beste batzuk ez, ta gorridxek gariela, ta horrexek inuzentekeidxek esaten oskuen ta. Gero, Gernikarantz hasi giñen apurke-apurke, ta gero ein ebien /einbien/ Gernike, Errenteridxe be gero akabe zan. Nik lagunek be Errenteridxekoak [...] izen giñen kuadrillie, ta han neska guztidxek urtebete gehidxau, urtebete gitxiau, danak lagunek, baia bakotxak beran kuadrilletxue. Gu bost izen giñen, ta neu bakarrik bizi naiz nire kuadrillen, neu bakarrik, bestiek joan die, ezkondute, baia...
- Ta mutilekaz batera?
- Larogeta zazpi urte dakotez e.
- Ta, kuadrillan-eta mutilek be bai?
- Bai, bai, badekotez. Badekotez nik erretratuek be mutillen... Mutillek etorri eitten zien Errenteridxera gero, eurek, eurek etorten zien. Bueno, geure lagunek izen zien ta.

6. Bonbardaketak iraun zuen artean Arratzun I

- **Erref**: GER-104/012
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:18:33. **Bukatu**: 00:20:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Bonbardaketak iraun zuen artean baserrian egon zen, Arratzun. Antzinako etxe bat erre gabe geratu zen, eta aitak eraberritu zuenean, hara joan ziren. Ez zegoen ezer, zorriak bakarrik. 12 urte zituen Arratzura joan zirenean, familiakoek ez zieten uzten Errenteriara itzultzen, han hobeto egongo zirelakoan.

Transkripzioa
- Eta, han e, zu bonbardeoan Errenterixen eon ziñen edo Gerniken?
- E?
- Bonbardeoan Errenterixen egon ziñen ala Gerniken?
- Gu baserridxen.
- Nun?
- Baserridxen. Arratzun. [Nunuk] ta lehengo antziñako etxe bat geratu zen erre barik. Ta aittek, aittek arregle eban apur bet, eta, arregle ebanien, hille bigarrenien etor giñen ya Gernikera. Ez kamiñorik... zorridxek baiño ez

genduzen euki. Ta horrek, moroak, moroak, hamen praka boltzak ein, boltzak ein prakak, ta, oiloak ostuten ebiezan, basar.. baserridxetan, ta samie bidxortuten otsoien, [harek ez abien eitten zera] ta.
- Eta Arratzuko baserridxe norena zan ba?
- E?
- Arratzuko baserrixe norena zan?
- Guk Arratzukoekin ez gendun euki zerik, traturik. Arratzun euki gendun –a ver, esango dotsut /esangotzut/– nire koiñatuen lehengusue. Ta haraixe joan giñen. Ta asko [gure ixen oskuen] e, ez doskuen izten etorten Errenteridxera. "Zetan joango zarie ba? –esaten oskuen- Egon zaitte hamen, hamen hobeto zauzie eta". Ba ze gure amak koziñe eitten eban ondo, eta...
- Eta zer dala ta joan ziñien?
- E?
- Abieu zenduen zozer paseko zala?
- Hamabi urte euki nabezen. Hamabi urte. Hamahiru setienbrien eitteko.
- Baiña, bonbardeoan aurretik, abieu ein zenduen badatorrela?
- Bueno, baia ez doskuen ezer eitten, ze, derrepente izen zan gehidxen agertu zana.

7. Bonbardaketa osteko gertaerak

- **Erref**: GER-104/013
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:20:41. **Bukatu**: 00:21:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:
Gernika bonbardatu zuenetariko bat etorri zen Gernikako plazara, itzultzaile batekin. Esan omen zuen beraiek ez zutela erre Gernika, eta dirua bildu zutela Alemanian Gernikara bidaltzeko. Ez zuten dirurik ikusi Gernikan, agian dena Madrilen geratuko zela dio.

Transkripzioa
- Beittu, gero etor dxaskun zer bat plazara, Gernikara, bonbardeo ebana, bueno, "uno de los que bombardeó Gernika".
- Esaozu hori lehen, lehen konta dozu /kontazu/.
- Bat e, bonbardeo ebana. Hona etor nazenetik eta hona, gitxiau eitten dost euskeraz, ta...
- Hori konteu dozu, Pilar, hori lehen konteu dozu /kontezu/.
- Etor zen, ezta? Ta harek tradutorrak ta harek esaten eban, ba, ze... esan eban ba ze... eurek ez dabela erre Gernike e, ez apurtu, ez erre. Ta batu dabela bazterra diru batu dabezela Alemanian hona ekarteko. Baie antza Madrilen geratu zien danak, diruek, ba ze, guk ez genduen iñok pe...

8. Bonbardaketak iraun zuen artean Arratzun II

- **Erref**: GER-104/014
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:23:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Bonbardaketa arratsaldeko hiruretan hasi zen, bazkaldu eta arrapaladan joan ziren baserrira, Arratzura. Zornotzan ere bota zituzten bonbak. Bonbardaketa ostean familien arteko liskarrak hasi ziren: elkar ezin ikusiak, haserreak...

Transkripzioa
- Bai, baina, ia Pilar, entzun ondo, e? Bonbardeoa hasi zanien, nun egon ziñen zu?
- Baserridxen.
- A! ariñau alde zenduen.
- Atsaldeko hiruretan hasi zen, ta bazkaridxe jan ta arrapaladan baserrire.
- Orduen igerri zenduen?
- Arratzurantz.
- Abieu ein zenduen?
- Hiruretan etor zien abioiek, eta orduen segiduen hasi zien botaten. Amorebietan be bota ebiezen, e.
Ta Merceden mojak.
- Danok? Etxeko danok?
- Ta mojak. Ta hamen za... hamen be mojak. Honek, honek ez zien egon, e! honek geroago ein... soloak izen zien honek, geroago iñikoak diez honek. Baia moja bi-edo hil ebiezen metrailliaz. Ta euren ganien zemat hilde, [...] igon ebanien. Gernike itzel [eon zan]. Beittu be ez arpeire, ezaunek, familia osoak arpeire beittu be ez. Ba ze batzuk ia gero kanbidxe ein ebiezen jentie be. Dana harekin hobeto gauzela, harek emon, emon eitten da, bestiek ez doskuela emoten ezer ta... Dana endredue. Baie gu ez giñen kanbidxeu, e. Niri zera, notaridxoa, etorten dxast firmetako, botoa botateko, ta nik al PNV siempre, ala.
- Kanbixe barik.

9. Medikurik ez Gernikan, gehienak ihesean edo kartzelan

- **Erref**: GER-104/016
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:23:53. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerran, soroetan zuloak egin, eta bertara botatzen zituzten hildakoak. Gezur asko esan ziren garai hartan. Aita bihotzekoak jota hil zen, Gernikan ez zegoen medikurik ere, ihesean edo kartzelan zeuden ia denak. Zorriak ugari, ez zeukaten beste ezer.

Transkripzioa
- Han dekogu panteoie. Beittu, kanpusantue, ezta? Ta kapusantuen ondoan soloa egon zan, handitxue, baserrikoa, ta han ein ebiezan horrek zertun, ba, zabaldu ta hara bota. Hara bota ebiezen. Ta hamabigarren urtien,

hamabigarren urtien, La Gaceta, La Gaceta del Norte ipin ban, ba, badakidxe Gerniken hil dana, etorteko, ba, zabaldu eingo dabela hango, hango zera. [Bakizu non], dana zati... haustendute danak, bata best... Nire lehengusiñiek, lehengusiñe batek, ezautu eban gixona, jakien ezautu eban.
- A bai?
- Bai. Baia zer? zatidxek, zatidxek...
- Ta guzur asko esan zan. Guzur asko.
- E?
- Guzur asko.
- Guzur asko eon zan hor be. Nire aitte be joan zan... Beittu, e. Orduen bost ogerleko. "Ermere, kanbidxeko dostazu /kanbidxekostazu/, hau bosteko, hau bost ogerleko papela?", "Jose Antonio Agirrek kanbidxeko dotsu / kanbidxekotzu/". Bera karlistie ezan zan, ta berari be etxie erre.
Ta gero Errenteridxen denda baten, Bilbora joan zien lez harek, ba... hori, "Txopeta –Txopeta esaten otsien neure aitteri, Txopitea izen gara ta, Txopeta– eingo dotsue... Jose Antonio Agirrek kanbidxeko dotsue". Nire aittek berba bat be ez, dardarakadan, ta handik egun batzukarren emon otson /emontson/ infartoak. Medikurik be ez Gerniken. Gerniken medikurik be ez. Ta zer da, ba, zer da, ez dauela ondo, ez dauela ondo, baia, nor ekarko zandun Gernikara ba, danak eskape ebien ta. Alegria, Alegriak pe izen zien medikuek, baie harek pe kartzelan, Bizkaittarrak izen zielako. Ta beste... beste baten aitte agarre eban, baie edadekoa izen zan ta, [...] joan zan kridxadien etxera ta harek ez aben urten handik. [Sartu gau-gaure] pasa genduzan, e! Beittu, zerien gabaz, bonbarduen gabaz, gure tion etxie on zan, kamiño ondoan, ta nik ordun izen zan kostunbrie, kostunbrik –oin modak esaten da, ordun kostunbrik esaten zan– hor hamabi, hamalau, urteko neskak sandalidxekin zerera, eskolara. Ta kaltzetin zuridxekin, aprile ezan zan, ta denpora bat ederraua... Ta joan giñen, ta lo haren mantan ganien, behidxen mantan ganien, beteta, jentie. Ta akorda nintzenien goixien, kaltzetiñek okin nabezenak aldien be, ta sandalidxek dezaparezidu ein zien, baten batek hartuko ebazan... [...] Ez gendun euki zorridxe baiño.

10. Etxeko denak onik atera ziren bonbardaketatik

- **Erref**: GER-104/017
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:27:30. **Bukatu**: 00:29:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:
Etxeko denak onik atera ziren. Ahizpa klausurako moja zen, eta irten egin behar izan zuen komentutik, "Batallón Loyola" bertan zegoelako. Arratzuko baserrian egon zen familia osoa. Gernikako babesleku baten erdian ere bonba bat erori zen, ia denak hil ziren.

Transkripzioa
- Etxien zozer ata zenduen?
-Etxien ez gendun, ez gendun... etxie ez gendun... gero ein ebien, gero ein ebien. Ta nik ikusi bazendun, nik, gure aitte ikaratute [...] "Ume, ez eixu altzau horrek harridxek, jeusitten bajatzuz hanketara, hankak apurtuko dotsue eta". Ba ze okin nabezen zapata barridxek, hamabost egun ariñau erositte zapatak. [Zelan...] dirue, hamahiru pezeta. Ba orduen modak-eta

oingo moduen-ta ez ziren lez /ezielez/ egon. Ta amak esaten osten ba ze karutxuek dizela hamabost pezetakoak eta hamarrekoak, eta, ba, "nik ez dot gure hamarrekoak, ama". Ta nire lagunek, beste lagun batek pe, harek pe hori esaten otson, Pilar Txopiteanekoak... harek erosiko dotsoiez, ta bidxok igualekuek okin genduzen. Ta topeko [kolorekoan] eskonbro artien zelako harridxek altzaten genduezen, ta gure aittek: "Ume, Bilbora noienien, neuk ekarko dotsutez. Baie itxizu harridxeri bakien, harek erre die eta". Baie ezin pentseu erre danik, ezin pentseu.
- Baia etxekoak danok ondo?
- E?
- Etxekoak danok ondo?
- Etxekoak bai, jangoikoari eskerrak. Aiztie euki naben Merceden moja, ta harek klausuren on zien be, urten ein biher izen abien /bizebien/, ba ze han egon zan El Batallón Loiola. Baia etxekorik ostantzien iñoreñe... Arratzun egon giñen ta, danok joan giñen Arratzure eta gero, ba, ez giñen jangoikoari eskerrak... Baia familidxek... egon zan la calle... harek izena okin eban... oin botikie dau ba Gerniken, han kantoi baten plazien ondoan, kantoien, Andra Maidxerantz joateko?
- Bai.
- Ba handik hasitte eskillarak egon zien, eskilarak, han dana aldatsa Andra Maidxerarte, eta han erdidxen bakizu zer egon zan? errefujidxo bat. Eta erdi-erdidxen bonbie jeusi zan. Zemat hil ebiezan [batek jakin], ta pasionista batzuk egon zien, eta harek danari esaten, esaten "Errezau señor mío, Jesucristo, señor mío, Jesucristo errezaizue danok".

11. Errenteriako babeslekua

- **Erref**: GER-104/018
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:29:58. **Bukatu**: 00:31:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Errenterian babeslekua egin zuten, baina garaiko babeslekuak lau oholekin egiten zituzten. Ama Bilbon egon zen neskame, baina ez zuen gazteleraz ikasi.

Transkripzioa
- Ta Errenteridxen egon zan?
- E?
- Errefujidxorik Errenteridxen?
- Errefujidxoak ein ebiezan, ta... baie zer? Antziñako errefujidxoak. Oingo... Lau ohol ipiñi, lau oho,l ta... ohol batzuk ipiñitte ta... bandera bizkaittarra ipiñi puntan ta kittu. Iñuzentiok. Gu izen giñen bizkaittarrak. Esango dotsut /esangotzut/. Ama egon zan Bilbon kridxada, ta ume bi euki ebiezen neska-mutiltxuek. Ta harek neska-mutiltxuek [etxeko]... Pedernalesera joateaittik, hille bi pasatan kazo bete zer jaten ebien, inddabie edo garbantzue edo arroza, kazo bete, ta gero antxoba bi-edo atzetik. Gero, orduen be, antziñe be, eon zan harrokeridxe, e. Ta... baia berak erderaz ez aben ikesi, gero beste leku baten be eon zan, baie ez aben ikesi. Gero hasi giñen ba danok...
- Ez eban ikesi?
- ... danok euskeraz, ta gure amak eta...

12. Errenteriako karlistak eta batzokia

- **Erref**: GER-104/020
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:35:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Errenteria auzoan karlistak gutxi izan ziren, batzuk gerora egin ziren karlista, jateko zerbait izan zezaten. Errenteriako batzokia Ajangizen zegoen, baina jendea Gernikako batzokira joaten zen, Ajangiz urrun gelditzen zitzaielako, eta asko joan ere ez ziren egiten, ez zutelako baliabiderik.

Transkripzioa
- Neskatilla gaztiek moroan billurrik ez zenduen eukin?
- Bai! Pentsaten dozu, Gerniken ibilitze, nora urteten ebien danok billurreaz eoten giñen ta. Danok bino, ensegida amenazaten otsuen, haixe kartzelara erungo bai, eta izen leike ta, billurregaz, danok billurregaz. Egon zan jentie, karlistek pe egon zien lez, ba, harek ibiltzen zien komandantiekin, ta harek ibiltzen zien baia, harek eskape ebien gero ta kitxu...
- Errenteridxen karlista asko? Ez...
- Gero ein zien batzuk, gero, esango dotsut /esangotsut/ zegaittik, ba ze, jatiegaittik, ba ze, emon eitten tsoien gauzek jateko ta, jatiagaittik. Baia ostantzien Errenteridxen karlisterik ta... dana bizkaittarra, dana bizkaitarra. Oin, nik beti bota dot, PNV-ra botoa ta. Pentsaten dot, bizi nazen artien iñor ezer ez padau be, PNV ni ez noa kanbidxetan.
- Eta hor, Gerniken Batzokidxe egon zan?
- E?
- Gerniken Batzokidxe egon zan, eta Ajangizen edo Errenterin?
- Ajangizen egon zan Errenteridxeko Batzokidxe. Errenteridxen, Errenteridxeko jendientzat Ajangizen egon zan Batzokidxe. Baie, gehidxau jentie, joaten zan Gernikeko batzokire, ba ze, hara arte Ajangizko puntera arte ez joatiagaittik... Gernikara, musikie joten eben bide batez.
- Baia, joaten ziñien Batzokire?

- Gu, zegaz joango giñen Batzokira ba? txiki bet ez gendun eukitxen eta... Oingo moduen pentsaten dozu? Ai... Oingo moduen. Que va, ez gendun euki... goizetik etxera. Gurien e, nire seme-alabak pe goizetik etorten zien e.

13. Errenteriako karlistak eta errezoak

- **Erref**: GER-104/022
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:37:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Errenterian jende asko kartzelaratu zuten, eta batzuek horregatik aldatu ziren bandoz, kartzelara ez joateagatik. Ama eta aita bizkaitar leialak izan ziren, amak Sabino Arana bera ere ezagutu zuen arrosarioa errezatzen ari zela, Bilbon neskame ibili zen garaian. Gerora ere, emakumeak San Antoniogana joan ohi ziren errezoan.

Transkripzioa
- Bueno, eta Errenterizen e... jentie eruan ebien kartzelara edo...?
- Bai, jente asko kartzelara sartu zen, baia jente horrexegaittik kanbidxe zan, kartzelara ez joatigaittik.
Ez dozu /ezu/ aittuten? ba, euren botoa zerari bota tsoiela, ta ez dakit / eztai/ noreri bota tsoiela ta, bueno, askok kanbidxe, horrexek kanbidxe eban askok. Bizkaittarra bai ordura arte, gero, ez [...]... Nire aitte bizkaittarra izan zan, ta nire ama be bai, ta nire amak Sabino Arana be ezetu eban Pedernalesen.
- A bai?
- Errosaidxoa errezaten ei eban berak, beragaz, ta kridxada eon zanien Bilbon, hamabi urtegaz edo, umiekin joanda, neska-mutiltxuekin joanda. Sabino Aranaz. Ta orduan oin baiño txikitxuaua egon ei zen erminttatxue, ta San Antoniño [...] egon ei zen, baia, gure amak, deboziño bat euki otson... Ta gero, gero, urtiek eta urtiek eta pasa zienien, ba, moja, andrak, Barrutikoak, eta bueltako baserridxeko andrak etorten zien, errosaidxoa errezetan ta. San Antoniñori nobenia eitten, danak, e, batera, e, etorten zien.nBaia ez zien etorten, esaten daben moduen nobidxoa topetako ta. Ez. Harek etorten zien ganaduegaittik, ba ze, behi bet hiltzen bazan baserridxen, hondatu eitten zan baserridxe. Ta baserridxegaitik etorten zien. Baia, oin be danaitaikoak dekozuz ta, oin be danataikoak.

14. Fusilatzeak eta komentuaren eraisketa

- **Erref**: GER-104/023
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:37:33. **Bukatu**: 00:40:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:
Errenteria auzoko eta Foruko herritar batzuk fusilatu egin zituzten. Bonbardaketa izan zenean, astoak bakarrik itzultzen ziren etxera Gernikako azokatik, jabeak bertan hil zirelako. Mojarik ez zuten hil, baina komentuko paretak eraitsi egin zituzten.

Transkripzioa
- Eta Errenteriko jentie fusileu edo?
- E?
- Gernike... ai, Errenteridxeko jentie afusileu edo hil edo?
- Bai, da Forukoak pe bai, ein ebiezan. Kortan dauela gizona, esan eitson ba ze, urten eixu, urteixu kalera esan tson erderaz esango zan, soldado batek, eta orduen eroan ein bien ta gehidxau ez dabe ikusi. Ta asko, holakoak asko, e! Bonbardeoa izen zanien, akordaten naz, astoak etxera bakarrik, ta han plazan, ba ze Gerniken plazie handidxe eitten zan orduen, astelehenetan, oin be bai, baie orduen handidxaua. Ta, zerak, andrak hildde, ta astoak etxera bakarrik. Asko.
- Bidie ezeutute.
- Metrailliaaz apurtzen... hiltzen ebiezen, baju-baju, ez abien kontraridxorik iñor euki, eureri iñor ezer eitteko ta. Francok page otsoien hareri hiltzeko ta, danak, ai ene... zer izen zan ha! Mojari be, Errenteridxeko mojari be, eskaz partie, oin eskolie dau, baia orduen ez zan egon eskolarik, oin aparte bai, ta, dana bota tsoien, dana bota tsoien. Mojarik ez abien hil, ba ze, ez zien e... ez dakit ba non egon zien eurek... sotanoren baten edo egongo zien igual... baia... enei... baia... Gu be ume. Oingo neskak hamabi urtegaz, nobidxoa dekotzue, ta gu hamabi urtegaz umiek, umiek oniño. Ai, zer pentsaten dozu. Ze izen zien harek egunek. Ta beste jente asko kanpora eroan ebien. Ba ze nik ezetu naben, Gerniken familidxek, holan-holan [berde inguek eukiezenak] umiek, ba, Frantzidxera-ta eroan ebiezan ta harek hortik geratu die, harek ez die etorri gehidxau.
- Ta zuek, esan dozu, bi hiletara Gernikera etor ziñien, Errenteridxera.
- E?
- Arratzun bi hile egon ostien...
- Gu Arratzun egon giñen, baia Arratzure, Aidxa mendidxe, hara ez zien etorri.

15. Lantegiak konpondu beharra

- **Erref**: GER-104/024
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak

Laburpena:
Gernikan lantegi gehienek zutik iraun zuten, bonbardaketa ostean konponketekin hasi ziren, pixkanaka jendea lanean has zedin.

Transkripzioa
- Baia... gero... beittu, gauza bat ondo geratu zen Gerniken, fabrikek. Baia,

nire aitte-ta etorten zien, ba... zulo horrek [...] horrek goidxek eta jeusitte eoten zien altzetan harek eta ipintten biher dan /bidan/ moduen jentie hasi [daitten] apurke-apurke biherrien. Ta handik bas... mendittik, ez kamiñorik, ez gaitxerik... joate... etorteko, nire aiztie etorten zan bazkaridxe ekarten zerera, fabrikera. Ta gero, gero ha etxie erre ein zen, baia beste etxetxu bet ein ebien. Gero joaten giñen geu be bisittetan e, sarri joaten giñen. Baia lekutako aman etxien dau bera.
- Noiz buelte ziñen Errenteridxera?
- E?
- Errenteridxera... noiz buelte ziñen? Eta nora?
- Nora? Ba jentie kanpora be bai asko, eta urtiek eindde etorri.
- Ta zuek?
- Gu ez, gu etor giñen Errenteridxera... baia ni...

16. Bonbardaketa ostean Arratzutik Errenteria auzora

- **Erref**: GER-104/025
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:42:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gainontzekoek taloa jaten zuten bitartean, errazionamenduko ogia etxeko gizonentzat izaten zen, lan egin behar izaten zutelako. Errenteria auzoan antzina bizi izan ziren etxe bat ez zuten apurtu, eta bertara itzuli ziren bonbardaketa ostean.

Transkripzioa
- Amari oratu gonetatik eta negar ein bai, ogidxe gure dotela /gudotela/ ta. Ta baserridxen ogidxe jaten gendun, etxien eindde, eurek. Ta amak erraziñoa emoten oskuen, holakua,.Ta hiru gizon etxien, hiru gizon etxien... Ta harek, amak esaten eban ba ze "Taloa jan biher dozue /bizue/ ba ze gizonak bihar ein biher dabe ta harek jan biher dabe /bidabe/ ogidxe". Orduen ama [eitxe jakak, oina jentiek, amari nike lobari], nire lobak hori ez dotsoiena parkatzen e, baia...
- Baiña Errenteridxera nora? Egon zan etxeren bat ala?
- E?
- Errenteridxera nora etor ziñien? Egon zan etxeren bat?
- Errenteridxen, nik gero, gu Errentedxera joan giñen bizitzen, ba ze, etxe bat, antziñen bizi giñen etxe bat, ez abien apurtu. Ta aittek ze ein eban / einban/? arreglau ha etxie. Ta haraixe etor giñen gero gu. Ta ze eingo dotsagu ba? Baia gure gazte denborie ze izen zan ba.

17. Senarra musikaria

- **Erref**: GER-104/027
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:45:47. **Bukatu**: 00:50:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Senarra kanariar irletara bidali zuten hiru urtez, EAJren jarraitzailea zelako. Musikaria zen, trikitia eta danbolina jotzen zituen. Erromeria batetik etxera bidean ezagutu zuten elkar, gerora Andra Marin ezkondu, eta ospatzeko Bilbon igaro zituzten zortzi egun.

Transkripzioa
- Bueno, eta Ramon Bilbao, zure gizona
- Eneeeeei, aquel.
- Ha egongo balitxeteke bizirik, con noventa años murió. Harek, harek, eurenak pase ebiezan. Esan tsoien ba ze, esan ei tsoien ba ze, esto... "Ein biher dozue /bizue/", a ver... erderaz e, esan ei tsoien, a ver... Esto... "¿Tú por qué viniste a la guerra?, "Pues, yo como no sabía que, nosotros como no hemos sabido nunca qué es guerra o qué es esto... pues hemos venido así y así". Berak esan eban ba ze "Yo vine a la gerra, porque era –como me decía... esto...– del Partido Nacionalista Vasco_". Pero no afiliado, ¿no me entiendes? Un aficionado al Partido Nacionalista Vasco que era, y castigado lo mandaron a Canarias, y tres años tuvo que hacer. Ta gero, semie ein zanien kapitxena, joateko ta joateko ta joateko esaten oskun, ba, hamebi egun-edo eingo doguzela, "Yo no voy ni borracho allí –esaten eban– lo que pasamos allí".
- Eta musikue ze...?
- Musikue be izen zan. Don Segundogaz.joten eban musikie, ta...
- Zer joten ban?
- Ezpata-dantzaridxekin joten eban, triki-trikidxe ta... Hiru anaidxe izen zien ta halantxik hirurek, e. Ta... zera... ta tanboliñe.
- Bandan?
- E?
- Bandan?
- Ba...
- Gernikeko bandan?
- Ez dakit /eztaitx/, kustiñoa da, ba ze, ha pasa zan ta kitxu.
- Ta nun ezeutu zendun zuk Ramon?
- E?
- Nun ezeutu zendun Ramon?
- Ba noz? Ba igual 20 urte okin nabezenien, edo 21 urte okin nabezenien, Gerniken.
- Jantzan?
- Jantzan ez, harek ez aben eitten jantzarik, jo eitten eban zera ta, musikie ta. Ba, esango dotsut / esangotsut/, beran lagunek ezetzen genduzen ezta? ba ze, kuadrille handidxe izen zien ta. Ta... San Polikarpoatan Artian be... Artian erromeridxe ezaten zan, ta hara joan giñen. Etor giñenien orduntxe ezetu naben. Baia ez jantzarik egin nabelako beragaz e! ze jantzan ez eban jakin. Ba berbetan-berbetan etorri giñen ta, ta gero hasi giñen berbetan, ta gero pasilekuen be bai ta hasi giñen apurke-apurke ta. Ba beittu, 26 urte euki nabezen ezkondu ni... 3 urtien edo ibil giñen, 3 urte edo gehidxau e, nobidxotan. 3 urte baiño gehidxau be ein gendun nobidxotan.
- Eta Errenteridxen ezkondu ziñen?
- E?
- Ezkondu, nora?

- Ezkondu giñen Andra Maridxen. Eta nik esaten dotsat /esatetsat/, lobie maiatzien ezkondu da, ta 30 urtegaz ezkondu da, ta esaten dotsat / esatentsat/ "Gotzone, ez dekozu /eztekozu" lotsarik? Nora zoazie biejan?" ta diño berak ba ze "Amuma, Ameriketara". Ta Ameriketara joan zien ikusten 15 egun edo ein ebien Ameriketan ikusten alderdi bata ta beste alderdidxe ta beste... "Ez zara lotsatuten? –esaten da... – Amuma eta aittitte... 8 egunien baiño bakarrik Bilbora ez zien joan, hurrengo astelehenien biharrera joan biher eban /bixeban/ fabrikera ta.
- Bilbora?
- Bilbora. Ta jesus... Bilbora. Holantxek. Ta nire moduen nire lagunek be, e, euki ebiezenak nobidxoak, ba Bilbora? ba Bilbora. Ba... gehidxenak joaten joaten bazan lantzien Vittoridxera, parientiek edo okitxen ebiezelako edo... Edo Vittoridxe ezetziegaittik edo... Ta gu Bilbora. Ta Bilbora, 8 egun Bilbon.
- Eta ezkontzan ospakizunik bai?
- Erderaz ezkondu giñen, e, ez dabien izten euskeraz orduen.
- Eta gero jana edo?
- Ni ezkondu nintzen eneroan, el 20 de Enero, el día San Sebastián. Pero como no te dejaban hablar en castellano* (euskera) por que era el tiempo de Franco.

18. Sukarrietako errekan

- **Erref**: GER-104/031
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:56:20. **Bukatu**: 00:58:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Sukarrietako errekara joaten ziren bainatzera, baina berari ez zitzaion gustatzen, ito egingo zela uste zuen. Semeak Gernikako presan ikasi zuen igerian.

Transkripzioa
- Eta zuek han Errenteridxen errekan ibilko ziñien olgetan...?
- E?
- Errekan olgeko zenduen ta bañeu eta...
- Bai... ez pentseu e, errekaduek edo baia... aquellos si no rozaban con nosotros...
- Ez, ez... Errenteridxen, errekan, zuek olgeu eingo zenduen uretan... bañeu... errekan ez ziñien ibiltzen?
- Que va, Pedernalesera joatean giñen, ta ni... ni ez naz /enaz/ iñoiz bañeu, e! Ba ze, ure hona arte etorten jazten, eta pentsaten naben itto ein biher dotela / bidotela/ ta kanpora osta be arrapaladan. Ta neure seme-alabakin hori joanda, e. Ta nire semie presan, Gernikeko presan, ikasi eban uger. Ta gero joaten zien bakaziñoatan, institutoan egon zienien, zerera, Pedernalesera lagun guztidxek... joaten zien. Ta han eitten ebien, ipini... marie bajatzen zanien, ipini hamen erropak zintturoiegaz lotunde, ta burue altzau-altzau ein eta pasaten zien Laidera. Ta gero, pentsaten ebenien, laster hasiko dala ya marie, osta be bueltie emon ta...
- Ta zuek, orduen, errekan ez?
- Ta zelan ikes... nire semientzako izen zan, joan zanien nautikera, una

asignatura era, saber nadar.
Eta esan ei otsoien /eitsoien/, "a ver Santi, échate al agua", ta, enei, ensegida ein eban bueltie. Ta "non ikesi dozu /ikesizu/?", "¿Dónde has aprendido tú así a nadar?", "¿Dónde? En la presa de Gernika y Pedernales".

19. Prozesioak herri osoan zehar

- **Erref**: GER-104/033
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:59:29. **Bukatu**: 01:01:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Parrokoak kendu egin zituen prozesioak, arrosarioa errezatzen ari zela jendea elkarrekin hitz egiten aritzen zelako. Gernika osoa zeharkatzen zuen prozesioak.

Transkripzioa
- Ahora, prozesiñoak-eta ederrak bai e! prozesiñoak-eta ederrak. Baia parrokoak, akabuko parrokoa egon zanak, akabuko parrokoak kendu ein ebazen gero prozesiñoak, ba ze jente guztidxe... beittu...
"Oye, fíjate ella, oye oye mira qué traje, con traje, fíjate". ¿No te digo que Gernika costó mucho levantar?
[Bapore]... diru apur bet jeusi zan loteridxen ta harexek apur bet [...], baie "oye, beittu ha abrigue, ene abrigue, beittu, ene beittu", ta berbetan danak. Ta parrokoa errosaidxoa errezetan ta abadiek be... Ta parrokoak ze ein eban? kendu. Oin guk ez dakigu non dauzen harek santuek.
- Nundik nora joaten zan?
- E?
- Nundik nora prozesiñoa?
- Prozesiñoa Gernika guztidxeri emoten otsagun /emotetsagun/ guk. Gernike guzti-guzti guztidxeri [...]. Errenteridxera ez zan joaten, e. Ez zan joaten Errenteridxera. Hori Gerniken ya egon zana e... baia biderik eta ez zan lez ein biher dan /bidan/ moduen eindde, ba ze dana izen zan soloa, ta bakarrik erdiko kamiñoa bakarrik. Ta oin ikusko bazekez, handik Mercede partetik mojak-eta dauzen lekuen, eskolak-eta dauzen lekuen, barriadas, barriadas hay de casas.

20. Elizara Gernikako Andra Marira

- **Erref**: GER-104/036
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:06:57. **Bukatu**: 01:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Elizara Gernikako Andra Marira joaten ziren, dotrina ere han irakasten zieten. Errenteri auzoko elizan meza bakarrik ematen zieten. Errenteriako jendea San Juanera ere joan ohi zen, baina bonbardaketan goitik behera erre zuten. San Juan eliza, handia omen zen, ederra, bertan bataiatu zutela uste du.

Transkripzioa
- Errezetan nora joaten ziñien? Errenteridxera edo Andramaridxera?
- Andramaridxera, Gernikera. Doktriñie be hantxe emoten oskuen. Errenteridxen ezebe ez oskuen emoten, mezie bakarrik.
- San Juanera ez?
- E?
- San Juanera?
- San Juan erre ein ebien /einbien/.
- Baina, eurretik?
- Ta gero bota ein ebien. Ta Errenteridxera... Errenteridxeko jentie San Juanera joaten zan, baia gero bonbardeoan erre ein zen ha.
- Baia, zuek joaten ziñien?
- Ni egon naz San Juanen, e.
- Zelakoa zan?
- Ba edarra izen zan e, santu edarrakin elize handidxe izen zan, elize handidxe izen zan. Nire aiztie eta... San Juanen bautizeta dauz, baia guri karmelittetan ibili nintzen lez ni, ba gu zerera...
- Andramarire?
- Andramarire.
- Baia bautizeta nun? Zu?
- Ba... ez dakit /eztaitx/, ez dekot... ez dotsat iñoiz amari pregunteu, non bautize, non bataiatu nazen. Ala Andramari... San Juanen izango zan kontizu.

21. "Ardoa edanda" kantuan

- **Erref**: GER-104/040
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 01:15:35. **Bukatu**: 01:16:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
"Ardoa edanda" abestia abesten du.

Transkripzioa
- Ardaua edanda mozkortzen nai, pipia erreta zoratzen nai, neska laguntzen lotsatzen nai, zelan demontre biziko nai... Baia badakit gehidxau be, ba ze ama... amak pe euskeraz kantetan eban /kantetaban/ ta.
- Baie ez dekozu ya akorduen... bueno.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com